

# JOSEPH SMITH PROFETAREN AITORMENA

Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Eliza



# JOSEPH SMITH PROFETAREN AITORMENA

*Ondoko kontakizuna Joseph Smithek bildu zuen historia zabal eta zehatzetik aterea da, eta kontatzen ditu, haren beraren hitzetan, Azken Eguretako Santuen Jesu Kristoren Elizaren sorrera ekarri zuten gertakari garrantzitsuetako batzuk.*

Ni gure Jaunaren mila zortziehun eta bosgarren urtean jaio nintzen, abenduaren hogeita hiruan, Vermont estatuko Windsor konderriko Sharon herrian. Hamar urte inguru nituenean, nire aita, Joseph Smith, Zaharra, Vermont estatua utzi eta New York estatuko Ontario (egun Wayne) konderriko Palmyrara aldatu zen. Palmyrara iritsi eta handik lau bat urtera, nire aita bere familia hartu eta Ontario konderri bereko Manchester herrira aldatu zen.

Gu Manchesterra aldatu ondorengo bigarren urtean, ohi ez bezalako zalaparta piztu zen bertan erlijioa zela eta. Metodistekin hasi zen, baina bai agudo hedatu ere inguruko sekta guztien artean. Bai, barruti osoa zegoen hark joa, eta jendetza handiak biltzen ziren erlijio alderdietara. Horrek nahasketa eta zatiketa sortzen zituen jendearen artean, batzuek ziotelarik, "Hona hemen egia!", eta beste batzuek, "Hara han egia!". Batzuk fede metodistaren alde ari ziren, beste batzuk presbiterianoaren alde, eta beste batzuk baptistaren alde.

Nahiz eta erlijio horietara konbertitzen zirenek konbertitzeko unean maitasun handia sentitzen zutelara adierazi, eta erlijio guztietako kleroek ere gar handia agertu – kleroak gogotik saiatzen baitziren ohiz kanpoko erlijio sentimendu hura sortzen eta indartzen, "denak konbertitzearren", berek ziotenez, berdin zion zein sektatara –, bada, konbertituak banatzen hasi zirenean, batzuk sekta batera eta beste batzuk beste batera, ikusi zen bai apaizen bai konbertituen sentimendu ustez onak

Utahko Salt Lake Cityko  
Azken Eguretako Santuen Jesu Kristoren Elizak argitaratua

Copyright © 1997  
Azken Eguretako Santuen Jesu Kristoren Eliza

Eskubide guztiak gordeta

Printed in Germany

Ingelesezkoaren onespina: 9/84  
Itzulpenaren onespina: 9/84

Joseph Smith Profetaren Aitormenaren itzulpena

32667 109  
Basque

gehiago zirela itxura hutsa egia baino, nahasmen handiko eta etsaigoz betetako ikuskizun bat gertatu baitzen segidan – apaiza apaizaren kontra eta konbertitua konbertituaren kontra – eta haien elkarrekiko sentimendu onak, inoiz izan bazituzten, erabat galdu ziren hitzezko eta iritzizko gerla batean.

Nik hamabost urte nituen garai hartan. Nire aitaren familia fede presbiterianora konbertitu zuten, eta haietako lau eliza hartan sartu ziren, ondokoak: nire ama Lucy, nire anaiak Hyrum eta Samuel Harrison, eta nire arreba Sophronia.

Zalaparta handiko egun haietan, nire gogoak hausnarketa serioak egin zituen eta egonezin handia jasan zuen; baina, nire sentimenduak sakonak eta maiz mingarriak ziren arren, alderdi haietatik guztietatik urrun egon nintzen beti, nahiz eta haien bileretara ahal nuen guztietan joan. Zenbait denbora igaro ondoren, sekta metodistaren aldera makurtzen hasi nintzen, eta haiekin bat egiteko gogoa ere piztu zitzaidan; hain ziren handiak, ordea, izen hori zuten taldeen arteko nahasketa eta ezin-konponduak, ezinezkoa baitzen ni bezalako pertsona gazte eta eskarmentu gutxiko batentzat arrazoia zeinek zuen garbi ikustea.

Nire gogoa izugarri asaldatzen zen batzuetan, hango oihuak eta iskanbila hain ziren handiak eta etengabeak.

Eztabaida gogor eta iritzi kontrajarri haien erdian, askotan galdetzen nion neure buruari: Zer egin behar da? Alderdi horietako zeinek du arrazoia, ala guztiak daude oker? Eta horietako batek arrazoia badu, zein da, eta nola jakingo dut?

Erlijio alderdien arteko liskarrek sortutako eragozpenek estuturik nenbilela, ari nintzen irakurtzen egun batean Jakueren Epistola, lehenengo kapituluko bosgarren berseta, eta honela dio: “Zuetakoren batek jakinduria falta badu, eska diezaiola Jainkoari, Hark eskuzabalki ematen baitie denei eta errietarik ez egiten; eta emango zaio.”

Sekulan ez da idatzi santuetako pasarterik inoren bihotzera indartsuago iritsi, hura nirera baino; bazirudien izugarritzko indarraz sartzen zela nire bihotzeko sentimendu guztietan. Behin eta berriro egon nintzen hitz haiek hausnartzen,

eta banekien inork Jainkoagandik jakinduria jasotzeko premia bazuen, neuk nuela; ez bainekien nola jokatu, eta neukan baino jakinduria gehiago iristen ez banuen, ez nuen inoiz jakingo; bada, sekta desberdinetako erlijio irakasleek hain bestela ulertzen zuten idatzi santuetako pasarte bera, galdu egiten baitzen auzia Bibliaren bidez argitzeko esperantza.

## Lehenengo Ikuspena

Azkenean bi aukera nituela jabetu nintzen, edo ilunbetan eta nahasmenean jarraitzea, edo bestela Jakuek dioena egitea, hau da, Jainkoari eskatzea. Eta azkenean “Jainkoari eskatzea” erabaki nuen, pentsatuz Hark jakinduria ematen bazien falta zutenei, eta eskuzabalki ematen ere eta errietarik egin gabe, neu ere ausart nintekeela.

Hala, Jainkoari eskatzeko erabakiari jarraituz, baso batera erretiratu nintzen ahalegina egiteko. Mila zortziehun eta hogeiko udaberri hasierako goiz eder argitsu batean izan zen hura. Lehenbiziko aldian zen halako ahalegina egiten nuena, bada estuasunak estuasun, inoiz ez bainintzen ozen otoitz egiten saiatu.

Aurrez aukeratua nuen lekura erretiratu ondoren, ingurua aztertu eta bakarrik aurkiturik, belaunikatu eta Jainkoari neure nahia azaltzen hasi nintzen. Ozta hura egin, eta segituan indarren batek hartu ninduen eta erabat menderatu, eta hain harrigarria zen haren eragina, mihia erantsi baitzitzaidan eta ezin izan nuen hitzik esan. Ilunbea egin zen nire inguruan, eta une batez iruditu zitzaidan bat-bateko hondamena zetorkidala.

Baina, harrapatua ninduen etsai hartatik aska nintzan Jainkoari indar guztiaz erregutuz, eta justu etsitzera nindoanean eta hondamenean erortzera – ez amestutako batean, baizik eta mundu ikustezineko izaki egiazko eta harrigarriro indartsu baten mendean – bada, une larri hartan bertan, argizko zutabe bat ikusi nuen nire buruaren goian, eguzkia baino dirdiratsuagoa, pixkaka-pixkaka jaitsi eta nire gainean kokatu zena.

Hura agertzearekin batera libre sentitu nintzen eusten zidan etsaitik. Argia nire gainean kokatu

zenean, bi Pertsonaia ikusi nituen, adierazterik ere ez dagoen dirdira eta aintza zituztenak, neure goian airean zutik. Haietako batek hitz egin zidan, izenaz deituta, eta esan zuen, bestea erakusten zidala: "Hau Nire Seme Maitea da. Entzun iezaiozu!"

Nik helburu batekin jo nuen Jaunagana: sekta guztietatik arrazoia zeinek zuen jakitea; hala jakingo bainuen zeinekin bat egin. Neure buruaren jabe egin nintzenean, bada, eta hitz egiteko gauza izan, galdetu nien neure goian argitan zeudenei, ea sekta guztietatik zeinek zuen arrazoia, eta ea zeinekin bat egin behar nuen.

Erantzun zitzaidan ezeinekin ez nuela bat egin behar, denak oker zeudela eta. Mintzatu zitzaidan Pertsonaia esan zidan, gainera, haien sineskizun guztiak higuingarriak zitzaizkiola Berari; irakasle haiek denak ustelak zirela; hitzez Beraren ondoan zeudela, baina bihotzez oso urrun; doktrinatzat gizakien aginduak irakasten zituztela, jainkozko itxura pixkat emanda, baina Beraren ahalmena ukatuz.

Berrito debekatu zidan haietako edozeinekin bat egitea; eta beste gauza asko ere esan zizkidan, une honetan idatzi ezin ditudanak. Berrito neuregana nintzenean, lurrean nentzan luze, zerurantz begira.


Nik ikuspen hori izan eta egun gutxira, banengoen predikari metodistetako batekin, arestian aipatutako erlijio zalapartan oso saiatua bera; eta, erlijioaz ari ginela, aukeraz baliatu eta izana nuen ikuspena kontatu nion. Ikaragarri harritu ninduen haren jokabideak; nik kontatua arinki eta mesprezu handiz hartu zuen, esanez hura dena deabruarena zela, ez zela ez ikuspenik eta ez agerpenik egun haietan, halako denak apostoluekin bukatu zirela, eta ez zirela sekula gehiago izango.

Laster jabetu nintzen, ordea, nik istorioa kontatzeak aurreiritzi ugari piztu zuela nire kontra erlijio irakasleen artean, eta jazartzen hasi zitzaizkidan, gero eta maizago; eta ni hamalau eta hamabost urte arteko mutiko ezezagun bat banintzen ere, eta bizitzako neure egoeratik munduan batere garrantzirik ez nuena, goimailako pertsonak ari ziren herria nire kontra

"Jainkoari eskatzeko erabakiari jarraituz, baso batera erretiratu nintzen ahalegina egiteko"



“Argizko zutabe bat ikusi  
nuen nire buruaren goian”



berotzen eta jazarpen gogor bat sortzen; eta hartan bat zetozen sekta guztiak – denak bat eginda nire kontra.

Hark hausnarketa serioak eragin zizkidan orduan eta izan dizkit harrezkero; bitxia zen oso mutiko bat, hamalau urte pasatxokoa, eta egunero lan egitera behartuta zegoena mantenu urri bat ateratzeko, bat- batean garaiko sekta nagusietako handi-mandien arretagune bihurtzea, eta haiengan jazarpen gogorrenerako eta iraintzeko gogoa pizten zela gainera. Baina, bitxia edo ez, hala gertatu zen, eta hark maiz nahigabe handia sortu zidan.

Hala ere, egia-egia zen nik ikuspena izan nuela. Geroztik pentsatu izan dut ni orduan sentitu nintzela Pauloren oso antzera: Paulok Agripa erregearen aurrean egin zuen bere buruaren defentsa, eta kontatu argi bat ikusi zuela eta ahots bat entzun; baina gutxik sinetsi zioten; batzuek zioten gizon hura gezurtia zela, beste batzuek eroa zela; eta barregarritu eta iraindu egin zuten. Horrek guztiak ez zuen ordea haren ikuspenaren egia suntsitu. Hark ikuspena izan zuen, bera ziur zegoen, eta munduko jazarpen guztiak ere ez zezakeen egia hura alda; eta heriotzaraino jazartzen bazuten ere, hark bazekien, eta azken hatseraino jakingo zuen, berak argi bat ikusi zuela eta ahots bat entzun berari mintzatzen, eta mundu osoak ere ez zuen lortuko berari besterik sinestaraztea edo buruan sartzea.

Hala zen nigan ere. Nik argi bat ikusi nuen benetan, eta argi haren erdian bi Pertsonaia, eta haiek hitz egin zidaten egiazki; eta ikuspena izan nuela esateagatik gorrotatzen eta jazartzen ninduten arren, egia zen izan nuela; eta hala nioelako haiek ni jazartzen, iraintzen eta nire kontra belzkeria suerte guztiak botatzen ari zirela, honela esan nuen neure artean: “Zergatik jazartzen naute egia esateagatik? Nik ikuspena izan dut benetan; eta nor naiz ni Jainkoari aurka egiteko, edo zergatik nahi du munduak benetan ikusi dudana uka dezadan?” Nik ikuspena izan bainuen; banekien, eta banekien Jainkoak bazekiela, eta ezin nuen ukatu, ez eta ukatuko ere; hala eginez gero, Jainkoa haserretuko bainuen eta hondamena jasoko.

Jakinmina aseta neukan, bada, sekten munduari zegokionez – ez omen nuen haietako ezeinekin bat egin behar, baizik eta nengoen bezala jarraitu agindu gehiago jaso arte. Jakueren esana egia zela jabetu nintzen – inork jakinduria falta izanez gero, Jainkoari eskatu besterik ez zuen, eta emango zitzaion eta errietarik ez egingo.

## Moroniren Bisita

Bizimodu arrunta egiten jarraitu nuen mila zortziehun eta hogeita hiruko irailaren hogeita bata arte, jazarpen latza jasanez bitarte osoan jende mota guztiengandik, bai erlijiodunengandik bai erlijioabeengandik, ikuspena izan nuela esaten niharduelako.

Ikuspena izan nuenetik mila zortziehun eta hogeita hirura arte igaro zen denboran – garaiko edozein sektarekin bat egitea debekatu zitzaidanez, eta oso gaztea izateaz gain, adiskide eta laguntzaile behar nituenek eta oker nengoela uste bazuten maitekiro eta era egokian bide zuzena erakusten saiatu behar zutenek berek jazartzen nindutenez – tentaldi mota guztien mendean egon nintzen; eta, lagun klase guztiakin ibiltzeagatik, askotan zorakeria ugari egin nuen, gaztetako ahulezia eta giza izaeraren makaltasuna agerian utziz; eta horrek, damuz diot, Jainkoari mingarriak zaizkion tentaldi batzuetara eraman ninduen. Nik aitormen hau egitean, ez beza inork pentsa bekatu larri edo ikaragarriren bat egin nuenik. Halakorik egitea sekulan ez da nigan izan.

Haien ondorioz, gaitzetsia sentitzen nintzen maiz neure ahuleziagatik eta akatsengatik. Orduan, goian aipatu dudan irailaren hogeita bateko gauean, lotara erretiratu ondoren, otoizean jarri eta erregutu nion Jainko Guztiahaldunari barka ziezazkidala bekatu eta zorakeria guztiak, eta ager ziezadala zein ziren nire egoera eta maila Beraren aurrean; bada, zerutik agerpen bat jasotzeko itxaropen osoa nuen, lehenago bat jasoa nuen eta.

Jainkoari hala erreguka nengoela, argi bat sumatu nuen nire gelan, eta argi hura argitsuago bihurtzen joan zen, harik eta gela eguerdian baino argiago zegoen arte; eta berehala pertsonaia bat

azaldu zen nire ohe ondoan, airean zutik, haren oinek ez baitzuten zorua ukitzen.

Soineko lasai bat zeraman jantzita, zuritiesun berezi batekoa; zuritiesun hura zen nik lurtean ikusitako guztiak baino haragokoa; ez dut gainera uste lurreko ezer hain zuria eta dirdiratsua izatera irits daitekeenik. Eskuak agerian zituen, eta besoak ere bai eskumuturrak baino apur bat goragoraino; oinutsik zegoen, eta hankak ere agerian zituen, orkatilak baino pixka bat goragoraino. Buruan eta lepoan ere ez zeraman ezer. Ohartu nintzen hark ez zeukala soineko soineko hura baizik, irekita zuen eta bularra ikusi bainion.

Ez zen soilik haren soinekoa biziki zuria, baizik eta haren pertsona osoa hitzez adieraz daitekeen baino aintzatsuagoa, eta haren aurpegia tximistaren antzekoa zinez. Gela izugarri argi zegoen, ez ordea haren pertsonaren ingurua bezain argitsu. Hari lehenbiziko aldiz begiratu nionean, beldurtu egin nintzen; baina laster joan zitzaidan beldurra.


Izenaz deitu ninduen, eta esan zidan bera Jainkoaren presentziatik bidalitako mandataria zela, eta izena Moroni zuela; Jainkoak lan bat zuela nik egiteko; eta nire izena ontzat nahiz txartzat edukiko zutela herri, leinu eta hizkuntza guztietan, edota ongi nahiz gaizki hitz egingo zela hartaz herri guztietan.

Esan zidan bazela gordeta liburu bat, urrezko xafletan idatzia, kontinente honetako antzinako biztanleen eta haien jatorriaren berri ematen zuena. Esan zidan baita ere liburu hark betiereko Ebanjelioaren osotasuna zeukala idatzirik, Salbatzaileak antzinako biztanleei eman zien eran.

Bazirela, halaber, bi harri garden zilarrezko uztaietan ezarririk – eta harri haiek, bular-babes bati erantsiak, osatzen zuten Urim eta Tumim-a deritzana – xaflekin batera gordeak; eta harri haien edukitzea eta erabiltzea zela “ikusleak” izatea antzinako denboretan, eta Jainkoak liburua itzul-tzeko xederako prestatu zituela.

Gauza haiek esan zizkidanean, Itun Zaharreko profeziak aipatzen hasi zen. Lehenengo Malakiasen hirugarren kapituluko atal bat errepikatu zuen; ondoren profezia bereko laugarren edo azkeneko kapitulua, baina gure

“Pertsonaia bat (Moroni)  
azaldu zen nire ohe ondoan ...  
eta esan zidan ... Jainkoak  
lan bat zuela nik egiteko”



Biblian dioenetik apur bat bestela. Lehen berseta gure liburuetan datorren bezala errepikatu beharrean, honela egin zuen:

Bada hara, badator eguna labea bezala erreko duena, eta harroak oro eta gaizto jokatzten dutenak oro lastoa bezala erreko dira; datozenek erreko dituzte-eta, dio Armaden Jaunak; eta ez zaie utziko ez sustrairik eta ez adarrik.

Eta hurrena bosgarren berseta errepikatu zuen, honela: “Hara, Apaizgoa agertuko dizuet, Elias profetaren eskutik, Jaunaren egun handia eta ikaragarria iritsi baino lehen”.

Ondoko berseta ere bestela errepikatu zuen: “Eta hark landatuko ditu seme-alaben bihotzetan gurasoei egindako promesak, eta seme-alaben bihotzak gurasoengana itzuliko dira. Hala ezean, lur osoa zeharo suntsitua izango litzateke hura etortzean”.

Horiez gainera, Isaiasen hamaikagarren kapitulua errepikatu zuen, esanez betetzeko zorian zela. Errepikatu zituen, halaber, Eginak-eko hirugarren kapituluko hogeita bigarren eta hogeita hirugarren bersetak, gure Itun Berrian agertzen diren bezala hain zuzen. Esan zuen profeta Kristo zela; baina artean ez zela iritsi “haren mezua onartuko ez duena herritik bota egingo dute” gertatuko zen eguna, baina laster iritsiko zela.

Errepikatu zuen baita ere Joelen bigarren kapitulua, hogeita zortzigarren bersetetik azkenekoraino. Esan zuen hura ere gertatzeke zegoela, baina luzaro gabe beteko zela. Esan zuen, gainera, jentilen betetasuna iristear zela. Idatzi santuetako beste pasarte asko errepikatu zituen eta azalpen ugari eskaini, baina ezin dira hemen aipatu.

Esan zidan, bestalde, berak aipatutako xaflak eskuratzen nituenean – haiek jasotzeko eguna ez baitzen artean iritsia – ez nizkiola inori erakutsi behar, ez eta Urim eta Tumim-a zeukan bularbabesa ere, erakusteko aginduko zitzaidan lagunei izan ezik; eta egiten banuen, suntsitua izango nintzela. Xaflez ari zitzaidala, ikuspen bat izan nuen eta xaflak gordeta zeuden tokia ikusi, eta hain garbi, ezaguna gertatu baizitzaidan bertara joan nintzenean.

Elkarrizketa hura bukatu ondoren, ikusi nuen gelako argia hizketan aritu zitzaidanaren ingurura

biltzen hasi zela, eta halako batean gela ilun gelditu zen berriro, pertsonaiaren inguruan salbu; orduan, supituki, bide bat bezalakoa ikusi nuen zeruraino zihoana, eta pertsonaia igo egin zen erabat ezkutatu arte, eta gela gelditu zen argi zerutar hura azaldu aurretik zegoen bezala.

Banengoen, bada, ikusitakoaren bitxiaz pentsatzen, eta ohiz besteko mandatari hark esanak harridura ikaragarria sortzen zidala; eta, hausnarketan erdian, bat-batean konturatu nintzen gela argitzen hasia zela atzera, eta instant batean, lehengo mandatari zerutarra nire ohe ondoan zegoen berriro.

Mintzatzen hasi, eta lehenengo bisitan kontatutako berak kontatu zizkidan bigarrenez, izpirik ere aldatu gabe; hura eginik, jakinarazi zidan zorigaitz handiak gertatuko zirela lurrean, goseak, ezpatak eta izarriak eragindako hondamenak; eta zorigaitz mingarri haiek gizaldi honetan ikusiko genituela. Haiek denak kontatu ondoren, berriz igo zen lehenago bezala.

Orduko hain hunkitua nintzen, loak aspaldi ihes egin baitzidan begietatik; eta txundituta nentzan ikusi eta aditu nuen guztiagatik. Baina hura ezustekoa nirea mandatari bera berriro nire ohe ondoan ikusi nuenean, eta lehen esandako guztiak niri errepikatzen aditu; kontuz ibiltzeko abisatu zidan ordea, Satan ni tentatzen saiatuko zela (nire familiaren txirotasunaz baliaturik), xaflak neu aberasteko erabil nitzan. Debekatu egin zidan hura noski, esanez xaflak jasotzean ez nuela beste helbururik izan behar Jainkoa aintzatsu egitea baino, eta ez ninduela inongo asmok bultzatu behar haren erreinua eraikitzeakoa baizik; bestela, ez omen nituen jasoko.

Hirugarren bisitaren ondoren, hura atzera zerura igo zen lehenago bezala; eta ni beste behin gelditu nintzen gertatutako guztia hausnartzen. Orduan, mandatari zerutarra nigandik hirugarren aldiz igo eta ia segituan, oilarrak jo zuen, eta jabetu nintzen egunsentia zela; beraz, gure elkarriketek gau osoa iraun bide zuten.

Handik gutxira jaiki nintzen eta, ohi nuenez, eguneko lanei ekin nien; baina, beste batzuetan bezala aritzen saiatu nintzenean, sumatu nuen indarrak gabe nengoela eta ez nintzela ezertarako

gauza. Aita, nirekin ari baitzen, jabetu zen ez nengoela ongi, eta agindu zidan etxera joateko. Abiatu nintzen bada etxerako asmoz; baina, geunden sorotik irteteko hesia igarotzen hastean, indarrak huts egin erabat eta lurrera erori nintzen, eta aldi batez ez nuen ezeren ezaguerarik izan.

Gogoratzen dudan lehen gauza izenez deitzen ninduen ahots bat da. Altxatu nituen begiak, eta mandatari bera ikusi nuen nire buruaren goian zutik, argiz inguraturik lehenago bezala. Orduan, aurreko gauean kontatutako guztia kontatu zidan berriz, eta agindu aitagana joan eta jaso nituen ikuspena eta aginduak ager niezazkiola.

Obeditu egin nion; sorora itzuli eta dena kontatu nion aitari. Hark erantzun zidan hura Jainkoaren gauza zela, eta joan eta mandatariak agindutako guztia egiteko. Sorotik alde eta mandatariak xaflen gordelekua zela esandako lekura joan nintzen; eta izana nuen ikuspenaren gardentasunari esker, iritsi orduko ezagutu nuen.

## Agiri Sakratua

New York estatuko Ontario konderriko Manchester herritik gertu, muino handi samar bat dago, inguruko guztien artean goiena. Muino haren sartaldeko aldean, tontorretik hurbil, harri handi baten azpian, zeuden xaflak, harrizko kutxa batean ezarrita. Harri hura lodia eta biribilxka zen erdian goiko aldetik, eta meheagoa ertzetan, beraz haren erdialdea agerian zegoen, baina ertza, inguru osoan, lurrez estalirik.

Lurra kendu ondoren, eskuratu nuen egurrezko palanka bat, sartu nuen haren muturra harri-ertzaren azpian, eta indar pixka bat eginda harria altxatzea lortu nuen. Begiratu dut barrura, eta bai, han ikusi nituen xaflak, Urim eta Tumim-a eta bular-babesa, mandatariak esan bezala. Haiek zeuden kutxa elkarriz zementuren batez erantsitako lauzaz osatua zen. Kutxaren zoruan bi harri zeuden zeharka jarrita, eta haien gainean xaflak eta gainerako gauzak.

Haiek ateratzen saiatu nintzen, baina debekatu egin zidan mandatariak, eta ondoren berriro jakinarazi haiek ateratzeko unea ez zela artean iritsia, eta ez zela iritsiko handik lau urte barru



arte; esan zidan ordea handik justu urtebetera itzuli behar nuela hara, eta bera bertan elkartuko zela nirekin, eta hala egiten jarraitu behar nuela xaflak eskuratzeko uea iritsi arte.

Hala, agindu zitzaidan eran, urteurren guztietan joan nintzen, eta aldi oro mandatari bera aurkitu nuen han; eta elkarrizketa guztietan aginduak eta argibideak jaso nituen beragandik, Jaunak egin behar zuenaz, eta azken egunetan Haren erreinua nola eta zein eratan eraman behar zen.

Nola aita diruz beti eskas ibili ohi zen, eskuz lan egitera behartuak aurkitzen ginen, eguneko hainbestean arituz edo bestela, aukera nola zen. Batzuetan etxean izaten ginen, beste batzuetan kanpoan; eta etengabe saiatur, ateratzen genuen poliki bizitzeko lain.

1825eko urrian Josiah Stool zeritzan jaun zahar batentzat hasi nintzen lanean. Hura New York estatuko Chenango konderrian bizi zen.


Harentzat lanean ari nintzen bitartean, Isaac Hale jaunaren (Pennsylvaniako Susquehanna konderriko Harmony herrikoa) etxean hartu nuen ostatu; hantxe ikusi nuen lehen aldiz neure emaztea (haren alaba), Emma Hale. 1827ko urtarrilaren 18an ezkondu ginen, artean Stool jaunarentzat lanean ari nintzela.

Ezkondu eta berehala, Stool jaunaren zerbitzua utzi eta aitaren etxera joan nintzen, eta harekin soro-lanetan aritu urte hartan.

Azkenean iritsi zen xaflak, Urim eta Tumim-a eta bular-babesa jasotzeko eguna. Mila zortziehun eta hogeita zazpiko irailaren hogeita bian, ohi bezala beste urteurren batean haiek gordeak ziren lekura joan nintzenean, mandatari zerutar berak eman zizkidan, esanez nirea zela aurrerantzean haien ardura; galtzen banituen, konturik ezagatik edo utzikeriagatik, suntsitua izango nintzela; baina haiek seguru edukitzeko ahal nuen guztia egiten banuen berak (mandatariak) berriz eskatuko zizkidan arte, babestuak izango zirela.

Laster konturatu nintzen zergatik jaso nituen haiek seguru edukitzeko hain agindu zorrotzak, eta zergatik esan zuen mandatariak nigandik espero zena egina nuenean bera haien bila etorriko zela. Bada gauza haiek nituela jakin zen bezain agudo, ahalegin ikaragarriak egin zituzten niri

“Azkenean iritsi zen xaflak . . . jasotzeko eguna”



kentzeko. Asma daitezkeen maltzurkeria guztiak erabili ziren hartarako. Jazarpena lehenago baino garratzago eta gogorrago bihurtu zen, eta jende mordoa zegoen niri haiek kentzeko etengabe zain. Baina, Jainkoaren jakinduriaz, nire eskuetan iraun zuten seguru, nigandik espero zena bete nuen arte. Hala, hitzartu bezala mandataria haien eske etorri zenean, nik hari itzuli nizkion; eta hark izan ditu gaur arte, gaur mila zortziehun eta hogeita hemezortziko maiatzaren bia delarik.


Zalapartak, ordea, aurrera jarraitu zuen, eta zurrumurruaren mila mihiak lanean ari ziren beti nire aitaren familiaz eta nitaz gezurrak hedatzen. Haietako milatik bat bakarrik kontatuz gero, liburu osoak beteko lirateke. Jazarpena jasanezina bihurtu zen, ordea, eta Manchester utzi eta emaztearekin Pennsylvaniako Susquehanna konderrira joan beharrean aurkitu nintzen. Abiatzeko prestatzen ari ginela – hain behartsuak izanik, eta gure kontrako jazarpena hain astuna non sekulan ez baikin en egoera hartatik aterako – estuasun haien erdian adiskide bat topatu genuen Martin Harris jaunagan, etorri eta berrogeita hamar dolar eman baitzigun biderako. Harris jauna New York estatuko Wayne konderriko Palmyra herrikoa zen, eta itzal handiko baserritarra.

Laguntza apropos hari esker iritsi nintzen Pennsylvaniako nire mugara, eta hara orduko xafletako karaktereak kopiatzeari ekin nion. Franko kopiatu nituen, eta Urim eta Tumim-aren bidez bai batzuk itzuli ere, eta dena abendutik, emaztearen aitaren etxera iritsi nintzenetik, hurrengo otsaila artean.

Otsail hartan bertan, aipatu berria dudan Harris jauna etorri zen gure etxera, hartu nik xafletatik kopiatuak nituen karaktereak, eta New Yorkeko hirirantz abiatu zen. Han zer gertatu zen jakiteko, berak handik itzulitakoan egin zidan kontakizuna da onena. Honela dio:

“Joan nintzen New Yorkeko hirira eta itzulitako karaktereak eta haien itzulpena erakutsi nizkion bere literatur lorpenengatik ospetsua zen jaun bati, Charles Anthon irakasleari. Charles Anthonen esan zuen itzulpena zuzena zela, ordura arte egiptoeratik itzulirik ikusia zuen beste edozein baino zuzenagoa. Orduan itzuli gabe zeudenak

“Xafletako karaktereak  
kopiatzeari ekin nion”



erakutsi nizkion, eta hark esan zuen egiptoarrak, kaldearrak, asiriarrak eta arabiarrek zirela; eta egiatzko karaktereak zirela. Ziurtagiri bat eman zidan, eta bertan ziurtatzen zitzairen Palmyratarrei haiek egiatzko karaktereak zirela eta itzulitakoak zuzen itzulirik zeudela. Hartu ziurtagiria eta poltsikoan gorde nuen, eta etxetik irtetera nindoala, Anthon jaunak dei egin zidan atzera, eta galdetu ea nola jakin zuen gizon gazteak urrezko xaflak zeudela aurkitu zituen lekuan. Nik erantzun nion Jainkoaren aingeru batek agertu ziola.

Hark orduan esan zidan: "Ea utzi ziurtagiri hori." Nik poltsikotik atera eta eman egin nion, eta hark hartu eta txiki-txiki egin zuen, esanez aingeruen bitartekotzarik ez zela, eta xaflak eramaten banizkion berak itzuliko zituela. Nik esan nion xaflak batzuk zigiluz itxita zeudela eta debekatua nuela haiek eramatea. Hark erantzun zidan: "Ezin dut zigiluz itxitako libururik irakurri." Harengandik alde egin eta Mitchell doktorearengana joan nintzen, eta Mitchell jaunak berretsi egin zuen Anthon irakasleak karaktereez eta itzulpenaz esandako guztia."

1829ko apirilaren 5ean Oliver Cowdery etorri zen nire etxera, nik sekulan ikusi ez nuen gizon bat. Kontatu zidan ari zela bera eskola ematen nire aita bizi zen auzoan, eta nire aita zenez eskolara umeak bidaltzen zituenetako bat, haren etxean egon zela ostaturik batez; eta han zegoenean, familiak nik xaflak nola jaso nituen kontatu ziola, eta beraz niri galdera batzuk egitera zetorrela.

Cowdery jauna iritsi eta handik bi egunera (apirilaren 7a) Mormonen Liburua itzultzeari ekin nion, eta Cowdery niretzat idazten hasi zen.

## Apaizgoa Berrezarria

Ari ginen bada itzulpena egiten, eta hurrengo hilean (1829ko maiatza) basora joan ginen egun batean, otoitz egitera eta Jaunari bekatuaren barkamenerako bataioaz argitasuna eskatzera, gai hori xaflen itzulpenean baitzen aipatua. Hala geundela, otoitzean eta Jaunari deika, zeruko mandatari bat jaitsi zen argizko hodei batean, eta eskuak gure gainean ezarri, ordenatu egin gintuen, esanez:

"Zuei, nire zerbitzari-kideoi, Mesiasen izenean, Aaronen Apaizgoa ematen dizuet; horrek ditu aingeruen bitartekotzaren, damutzearen ebanjelioaren, eta bekatuaren barkamenerako murgiltzeko bataioaren giltzak; eta apaizgo hori ez da sekulan lurretik kenduko harik eta Leviren semeek berriro, zintzotasunez, Jaunari opari bat eskaini arte."

Esan zuen Aarondar Apaizgo hark ez zuela eskuak ezarri eta Izpiritu Santuaren dohaina emateko ahalmenik, baina ahalmen hura handik gerora jasoko genuela; eta bataia gintezen agindu zigan, esanez nik Oliver Cowdery bataiatu behar nuela, eta ondoren hark ni bataiatu behar ninduela.

Beraz, joan eta bataiatu egin ginen. Nik hura bataiatu nuen aurrena, eta hark ni bataiatu ninduen ondoren – jarraian, ezarri nituen neure eskuak haren buruaren gainean eta Aarondar Apaizgora ordenatu nuen, eta ondoren ezarri zituen hark bere eskuak nire gainean eta Apaizgo berera ordenatu ninduen – hala agindu baitzitzaigun.

Aldi hartan bisitatu gintuen mandatariak, eta Apaizgoa eman zigunak, esan zuen Joanes zuela izena, Itun Berrian Joanes Bataiatzaileak duena bera, eta Petrik, Jakuek eta Joaneke agindutakoa egiten zuela; hiru haiek zituztela Melkisedeken Apaizgoaren giltzak, eta Apaizgo hura guri emango zitzaigula zegokion unean; ni Elizaren lehen Elderra deituko nindutela, eta bestea (Oliver Cowdery) bigarrena. Mila zortziehun eta hogeita bederatziko maiatzaren hamabosgarren egunean ordenatu gintuen mandatari hark, eta egun berean bataiatu ginen.

Bataioaren ondoren uretatik irten bezain laster, dohain handiak eta aintzatsuak sumatu genituen geugan, Aita Zerutarragandik jasoak. Nik Oliver Cowdery bataiatu orduko, hark Izpiritu Santua hartu zuen, eta zutiturik, laster gertatuko ziren gauza asko iragarri zituen. Eta hark ni bataiatu eta berehala, nik ere profeziaren dohaina neukan, eta, zutiturik, iragarri nuen Eliza honen hazkundera, eta beste gauza mordo bat Elizari eta gizakien umeen belaunaldi honi dagozkionak. Izpiritu Santuz beteta geunden, eta poz hartu genuen gure salbamenaren Jainkoagan.

Nola orduan gure gogoak argiturik zeuden, idatzi santuak errazak gertatzen hasi zitzaizkigun, eta haietako pasarte misteriotsuenen benetako esanahia eta asmoa garbi agertzen, ordura arte inoiz ez bezala, eta sekulan amestu ez genuen eran. Bitartean, behartuta geunden ezkutuan gordetzera bai Apaizgoa jaso izanaren eta bai bataiatuak izanaren zer-nolak, inguruan nabarmentzen hasia zen jazarpen izpirituagatik.

Taldean etorri eta jo ta txikitu egingo gintuztela mehatxu egiten ziguten zenbaitetan, eta hori erlijio irakasleek ere bai. Eta gu txikitzeo asmo haien aurka nire aitagarrebaren familia ari zen bakarrik (Jaunak hala nahita), familia hartakoak nire adiskide bihurtu baitziren eta gure erasotzaileen aurka zeuden, eta nahi zuten nik etenik gabe jarrai ahal izatea itzulpena egiten; beraz, ahal zuten babes guztia eskaini eta agindu ziguten legez kanpoko ekintza guztien aurka. (Joseph Smith 1:3-75.)

## Lekukoak

Itzulpena egiten ari ginela, aurkitu genuen Jaunak hiru lekuko berezi emango zituela, eta Mormonen Liburua itzultzeko iturri izango ziren xaflak ikusten utziko ziela; eta lekuko haiek haren berri eman beharko zutela, Mormonen Liburuan idatzita dagoen bezala (Ether 5:2-4 eta 2 Nefi 27:12). Guk aurkikunde hura egin eta ia segituan, hor bururatu zaie Oliver Cowderyri, David Whitmerri eta Martin Harrisari ondokoa galdetzea nik Jaunari: ea ez ote zuten berek hiru lekuko berezi haiek izateko pribilegioa jasotzerik. (Galdera egin zitzaion Jaunari, eta agertu zitzaigun hiru haiek izango zirela lekuko bereziak.)

Handik egun gutxira, Martin Harrisek, David Whitmerrek, Oliver Cowderyk eta nik erabaki genuen basora erretiratzea, eta han, gogotik eta apalki otoitz eginez, agindutakoa eman zekigun saiatzea, hau da, haiek xaflak ikusi ahal izatea. Aukeratu genuen bada Whitmer jaunaren etxetik gertu zegoen baso bat, bertara erretiratu, eta belaunikaturik, otoitz egiten hasi ginen fede handiz Jainko Guztiahaldunari agindu ziguna eman zekigun.

Aurrez hitzartu bezala, ni hasi nintzen ahoz Aita Zerutarrari otoitz egiten, eta ondoren gainerakoak bata bestearen atzetik. Lehen saio hartan, alabaina, ez genuen inongo erantzunik edo zerutiko agerpenik jaso. Bigarrenean ere ordena bera errespetatu genuen, bakoitzak bere txandan gogotik otoitz egiten ziola Jainkoari, baina aurreko emaitza berarekin.

Bigarren porrot hura ikustean, Martin Harrisek proposatu zuen bera gugandik aldentzea, uste baitzuen, garbi adierazi zuenez, bere presentzia zela guk nahi genuena ez lortzearen kausa. Aldendu zen bada gugandik, eta belaunikatu egin ginen berriro; eta otoitzean minutu batzuk baizik ez generamatzala, argi bat ikusi genuen geure goian airean, biziki dirdiratsua, eta aingeru bat agertu zitzaigun aurrean. Eskuetan xaflak zeuzkan. Haiek banan-banan jiratzen hasi zen, ikus genitzan eta zeuzkaten grabatuak ongi bereiz. Ondoren, David Whitmerri hitz egin zion eta esan: "David, bedeinkatua da Jauna eta haren aginduak betetzen dituen"; orduan, segituan, geure goiko argi dirdiratsuen kanpotik zetorren ahots bat entzun genuen, eta esan zuen: "Xafla hauek Jainkoaren ahalmenaz izan dira agertuak, eta Jainkoaren ahalmenaz izan dira itzuliak. Hauen itzulpena, zuek ikusi duzuen, zuzena da; eta agintzen dizuet orain ikusten eta entzuten duzuen guztiaren berri eman dezazuela."

Haren ostean, David eta Oliver utzi eta Martin Harrisen bila joan nintzen, eta gure lekutik tarte dezentera topatu nuen gar handiz otoitzean. Ez omen zuen, haatik, artean Jaunaren erantzunik izan, eta bihotzez eskatu zidan berarekin batera otoitz egiteko, berak ere guk jaso berri genituen dohainak jaso zitzaion. Biok jarri ginen bada otoitzean, eta bai azkenean nahi genuena iritsi ere, zeren otoitzak bukatu baino lehen, ikuspen bera izan baikenuen, nik bai behintzat berriro, eta beste behin ere gauza berak ikusi eta entzun nituen. Une berean, Martin Harrisek deiadar egin zuen, pozez zoratzen nabarmen: "Nahikoa da! Nahikoa da! Nire begiek ikusi dute! Nire begiek ikusi dute!" Eta jauzi batean zutiturik, esan zuen: "Hosanna", Jainkoa bedeinkatzen zuela eta izugarri pozik.

Hala, Jainkoaren errukiz agerpen aintzatsu haiek jaso ondoren, hiru gizon haiei jaso zuten

agindua betetzea gelditzen zitzaien soilik, hots, gauza haien berri ematea; hartarako, ondokoa idatzi eta sinatu zuten:

### Hiru Lekukoen Aitormena

“Jakin bezate obra hau eskuratuko duten nazio, leinu, hizkuntza eta herri guztiek, ezen guk, Jainko Aitaren dohainaz eta gure Jaun Jesu Kristorenaz, ikusi genituela bera dakarten xaflak; bertan nefitarren historia kontatzen da, eta lamandarrena eta haien anaiaena, eta Jaredtarrena, zeinak aipatutako dorretik etorri baitziren. Badakigu halaber xaflak Jainkoaren dohainaz eta ahalmenaz izan zirela itzuliak, haren ahotsak adierazi zigun eta; beraz, ziur gaude obrak egia dioela. Baita ere aitortzen dugu ikusi genituela xaflak grabatuak; eta haiek Jainkoaren ahalmenaz erakutsi zitzaizkigun, ez gizakiarenaz. Eta seriotasun osoz adierazten dugu Jainkoaren aingeru bat jaitsi zela zerutik, eta hark ekarri eta ipini zituen gure begien aurrean, eta hala ikusi genituen xaflak eta haiek zeuzkaten grabatuak; eta badakigu Jainko Aitaren dohainaz eta gure Jaun Jesu Kristorenaz ikusi genituela, eta aitortzen dugu gauza horiek egia direla. Eta hori zoragarria zaigu. Hala ere, Jaunaren ahotsak agindu zigun haien berri emateko; horregatik, Jainkoaren aginduei obeditzarren, gauza haien aitormena egiten dugu. Eta badakigu Kristorengan leialak bagara, gizaki guztien odoletik libratuko ditugula geure jantziak, eta orbanik gabe agertuko garela Kristoren epai aulki aurrean, eta sekula guztian biziko garela harekin zeruetan. Eta aintza Aitari, eta Semeari, eta Izpiritu Santuari, zeina Jainko bakarra baita. Amen.”


OLIVER COWDERY  
DAVID WHITMER  
MARTIN HARRIS

Gauza horiek jakin zirenetik laster, ondoko beste aitormen hau ere jaso zen.

### Zortzi Lekukoen Aitormena

“Jakin bezate obra hau eskuratuko duten nazio, leinu, hizkuntza eta herri guztiek, ezen Joseph

“Ikusi genituen xaflak ... eta aitortzen dugu gauza horiek egia direla”



Smith Gazteak, obraren itzultzaileak, erakutsi zizkigula aipatutako xaflak, urrezko itxura dutenak; eta eskuetan erabili genituen esandako Smithek itzultitako orri guztiak; eta ikusi genituen halaber haiek dauzkaten grabatuak, hark denak antzinako lan bat dirudielarik, eta egikera bitxikoa. Eta seriotasun osoz adierazten dugu esandako Smithek erakutsi zizkigula, bada ikusi eta haztatu egin genituen, eta ziur dakigu berak dauzkala aipatutako xaflak. Eta geure izenak ematen dizkiogu munduari, munduari aitortzeko, ikusi genuena. Eta ez diogu gezurrik, Jainkoa da testigu."

|                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| CHRISTIAN WHITMER | HIRAM PAGE         |
| JACOB WHITMER     | JOSEPH SMITH, ZAH. |
| PETER WHITMER     | GAZ. HYRUM SMITH   |
| JOHN WHITMER      | SAMUEL H. SMITH    |


Orduan, Aarondar Apaizgoa eman zigun aingeruak egindako promesa bete zedin irrikatzen hasi ginen, hau da, leial irauenez gero, jasoko genuela baita ere Melkisedek Apaizgoa. Apaizgo horrek du eskuak ezarri eta Izipiritu Santuaren dohaina emateko aginpidea.

(Profetak adierazi zuen Melkisedek Apaizgoa handik gerora jaso zutela Petriren, Jakueren eta Joanen eskuetatik, Pennsylvaniako Susquehanna konderriko Harmony, eta New Yorkeko Broome konderriko Colesville arteko leku batean, Susquehanna ibaiaren ondoan.)

## Eliza Sortua

Mormonen Liburua moldiztegian zegoen bitartean, ikusitakoen aitormena egiten eta berri ematen jarraitu genuen aukera zen guztietan; eta, bestalde, jakinarazi genien anaiei Eliza antolatzeke agindua jaso genuela; eta xede harekin bildu ginen (sei lagun), Peter Whitmer (Zah.) jaunaren etxean, K.o. mila zortziehun eta hogeita hamarreko apirilaren seigarren egunean. Bilera Aita Zerutarrari handiro otoitz eginez hasi genuen, eta ondoren, aurrez agindu zitzaigunari jarraiki, galdetu genien geure anaiei ea onartzen gintuzten beren irakasletzat Jainkoaren Erreinuaren gauzetarako, eta ea begi onez ikusten zuten jarraitu eta

"Joseph Smith Gazteak ...  
erakutsi zizkigun xaflak ... Eta geure  
izenak ematen dizkiogu munduari  
ikusi genuena aitortzeko"



geure burua eliza gisan antolatzea jaso genuen aginduaren arabera. Proposamen haiei guztiei baietz erantzun zieten aho batez. Orduan, ezarri nizkion eskuak gainean Oliver Cowderyri eta Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizako Elder ordenatu nuen; segidan, hark ni ere aipatutako Elizako Elder ordenatu ninduen. Ondoren, hartu ogia, bedeinkatu eta haiekin banatu genuen; berdin ardoa, bedeinkatu eta haiekin edan genuen. Jarraian, eskuak ezarri genituen han zen Elizako kide bakoitzaren gainean, haiek ere Izpiritu Santuaren dohaina jaso zezaten eta Kristoren Elizako kide berretsiak izan zitezten. Erruz isuri zen Izpiritu Santua gure gainera – batzuek profeziak egin zituzten, eta denok Jauna goretsi genuen eta poz ikaragarria hartu.

Ondoren, analetako beste batzuei dei egin eta haiek Apaizgoko zenbait postutara ordenatzen hasi ginen, Izpirituak agertzen zigunaren arabera; eta (Jainkoak emana zigun graziaz) Izpiritu Santuaren indarra eta dohainak ikusten eta sentitzen une zorionsua igarorik, pozik erretiratu ginen, bagenekien-eta ginela, eta Jainkoak onartuta, Jesu Kristoren Elizako kideak, eta gure eliza antolatu zela Jaunak guri azken egun hauetan emandako aginduaren eta agerpenen arabera, hala nola Itun Berriak Elizaz dioenaren arabera.


\*\*\*

Hauxe da Joseph Smithen aitormen ximplea eta zuzena, Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizaren sorrera ekarri zuten gertakarietako batzuk kontatzen dituen.

Eliza sortu eta gutxira, Joseph Smith eta haren jarraitzaileak New Yorketik Ohioko Kirtland herrira aldatu ziren, Cleveland ondora. Tenplu eder bat eraiki zen, misio lan zabala abiatu, eta Elizak eliztar ugari irabazi zituen. Sortutako misioen artean bazen bat Missourin, eta bertara aldatu zen geroago Elizaren gorputza.

Erljiozko ezinikusi handia izan zen garai hartan. Gorrotoa piztu zuten segituan Azken Egunetako Santuen kontra. Jende-taldeek eraso zieten, eta alde egin beharrean gertatu ziren, atzean beren etxeak, soro ongi landuak eta otoitz etxeak utzita.

## Melkisedek Apaizgoa jaso zuten Petriren, Jakueren eta Joanen eskuetatik



Illinoisko estatura joan ziren eta estuasun hartan ongi hartu zituzten. Mississippi ibai ondoko leku huts batean aintzira-lur sail zabal bat erosi zuten. Aintzira lurra lehortu eta eraiki zuten Illinoisko handiena izan zen hiria – Nauvoo, “ederra”. Amerikako eta Ingalaterrako misioetako ahaleginek izugarri ugaldtu zuten haien kopurua, eta aldi batez goraka joan ziren.

Nauvooko bakea, orde, motza izan zen. Erliziozko ezinikusi garratzak jazarpena ekarri zuen berriro ere. Joseph Smith eta haren anaia Hyrum kartzelan sartu zituzten gezurrezko delituak egotzita Illinoisko Carthagen. Han, estatuak agindu zien babesaz epaiketaren zain zeudela, armaz eta aurpegia margotuta joandako jendetza batek tiroz hil zituen 1844ko ekainaren 27an.

Brigham Youngek hartu zuen orduan Elizaren aitzindaritza. Hura gidari zutela Azken Egunetako Santuek Illinois utzi eta Mendi Harritsuetarainoko bidaia historikoa egin zuten, eta han ahaleginaren eta fedearen bitartez herri ahaltsu bilakatu dira.

Joseph Smith Jainkoaren profetatzat gogoratzen dute egun nazio askotako ehundaka milaka lagunek. Haren aitormena onartu dutenen bertuteak eta lorpenak haren jainkozko deiaren oroigarri dira. Hark jaso zituen agerpenak, hark irakatsi zituen egia sakratuak eta haren bitartez berrezarri zen apaizgoaren aginpidea dira Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizaren oinarriak.

(Iturritzat Joseph Smith 1:3–75 eta Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizaren Historia [Salt Lake City: Deseret Book Company, 1967] 1:2–79 erabili dira.)

## Bisita eskaria

Gehiago jakin nahi nuke Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizaz eta hark niri zoriontsuago izaten laguntzeko dituen bideez. Arren, bidal itzazu Elizaren ordezkariak nigana Eliza eta haren irakaspenak niri hobeto azaltzera.

Arren, igor eskari hau ondoko helbidera:

The Church of Jesus Christ  
of Latter-day Saints  
Referral Office, Floor 12  
Salt Lake City, Utah 84150  
U.S.A.

izena

Helbidea

luzkinak



AZKEN EGUNETAKO SANTUEN  
JESU KRISTOREN  
ELIZA